

1 FASEA (maiatzaren 11tik aurrera)

Ostalaritzako terrazan irekierarako baldintzak:



Ostalaritza establezimenduetako kanpoko terrazak zabaldu daitezke aurrez onartutako mahaien %50agaz. Mahaien edota mahai-taldeen artean, gitxienez, 2 metroko tartea mantentzen dala bermatu beharko da.



Establezimenduak terraza ipinteko okupatu beharreko eremua zabaltzeko udalaren baimena izango baleu, aurreikusitako mahai kopurua handitu daiteke, beti be, okupatutako eremuari jagokon mahaien %50eko kopurua errespetatuz.



Mahai edota mahai-talde bakoitzeko gehieneko persona kopurua 10 lagunekoa izango da. Mahai edota mahai-talde bakoitza, jarri daitezkezan persona kopuruaren arabera egokitutakoa izan beharko da, beti be, pertsonen arteko gitxienezko segurtasun distantzia mantentzea bermatuz.

babes eta higiene neurriak:



Erabiltzaile batek/batzuk terraza erabili eta beste bat/batzuk jarri bitartean, terrazako ekipamenduen garbitasun eta desinfekzio lanak egin beharko dira; bereziki aulki, mahai eta bestelako kontakturako gainazalena.



Erabiltzaileen eskura jarri beharko dira hidrogel edota desinfektante banagailuak.



Erabilera anitzeko kartak erabiltea saihestuko da gailu elektronikoak, arbelak, kartelak edota beste baliabide batzuk hobetsiz.



Zerbitzu-baliabideak (plater eta bestelakoak, kristaleria, mahai-tresnak, mantelak, etab.) itxitako gunetan gordeko dira. Hori posible ez dan kasuetan, bezero eta langileak dabilzan gunetatik aparte gordeko dira.



Autozerbitzurako produktuak (musuzapi-banagailuak, zotz-ontziak, ozpin- eta olio-botilak...) kendu egingo dira eta erabilera bakarreko formatuak hobetsiko dira. Posible ez dan kasuetan bezeroak behar dauan kasuetan soilik erabiltzeko zerbitzuak eskainiko dira.



Bezeroek establezimenduetako komunak erabili ahalko dabez. Komunen gehieneko okupazioa persona bakarrekoa izango da, salbu laguntza behar daben erabiltzaileen kasuetan. Establezimenduetako komunak, gitxienez, egunean 6 aldiz garbitu eta desinfektatu beharko dira.